Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko irailaren 13a, ostirala — 177 — Viernes, a 13 de septiembre de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORDIZIAKO UDALA

*Garapenerako Lankidetza Proiektuei dirulaguntzak. BDNS (Identif.): 784476.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/784476).

*Lehenengoa. Xedea.*

Gobernuz kanpoko erakundeei norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea da oinarri hauen helburua, erakunde horiek garapenerako lankidetza-programak antolatu eta gauzatu ditzaten, garapen bidean diren herrialdeetako biztanleen egoera sozio-ekonomikoa hobetze aldera.

*Bigarrena. Onuradunak.*

Diru laguntza eskatu ahal izango dute legez eratutako irabazi-asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakundeek, euren jarduerak deialdi honetako helburuarekin bat baldin badatoz. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatuaren erakundeak eta haren mende dauden zerbitzuak, Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Toki Administrazioa eta irabazi-asmoa duten erakundeak.

*Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.*

— Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

— Oinarri espezifikoak.

*Laugarrena. Zuzkidura ekonomikoa.*

Programa honen bidez deitutako laguntzen guztizko zenbatekoa 78.000 €koa da 2024ko aurrekontu-ekitaldirako, eta 1 481. 04.230.20.0103 2024 aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da.

*Bosgarrena. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa eta ordainketa.*

Proiektuarengatik eskatutako dirulaguntza gehienez 12.000 eurokoa izango da.

Onartutako dirulaguntza % 100, ordainketa bakarrean emango da onartutako unean.

Ez da ordainketa aurreraturik eta konturako ordainketarik onartuko.

*Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.*

Udalaren egoitza elektronikoaren bidez (nahitaezkoa da pertsona juridikoentzat eta nortasun juridikorik gabeko erakundeentzat).

Aurrez aurre, Udaleko Erregistro Orokorrean, pertsona fisikoen kasuan aukerakoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan legez aurreikusitako gainerako moduetan.

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Subvenciones a Proyectos de Cooperación al Desarrollo. BDNS (Identif.): 784476.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/784476).

*Primero. Objeto.*

Es objeto de las presentes bases establecer el régimen de otorgamiento de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a organizaciones no gubernamentales, para la organización y consecución de programas de cooperación para el desarrollo, dirigidas a la mejora de las condiciones socioeconómicas de los países en vías de desarrollo.

*Segundo. Beneficiarios/as.*

Podrán solicitar subvención las Organizaciones o Instituciones No Gubernamentales sin ánimo de lucro y legalmente constituidos, cuyas actividades coincidan con el objeto de esta convocatoria. Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria las instituciones y servicios dependientes del Estado, la Administración Autonómica, la Administración local y las entidades con ánimo de lucro.

*Tercero. Bases reguladoras.*

— Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia.

— Bases específicas.

*Cuarto. Dotación económica.*

El importe total de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 78.000 € para el ejercicio presupuestario de 2024 y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1 481.04.230.20.0103 2024.

*Quinto. Cuantía máxima de la subvención y abono.*

La subvención solicitada por proyecto no podrá superar los 12.000 euros.

El 100 % de la subvención concedida se abonará en un único pago en el momento de la concesión.

No se admitirán pagos anticipados ni pagos a cuenta.

*Sexto. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

A través de la sede electrónica del Ayuntamiento (obligatorio para las personas jurídicas y las entidades sin personalidad jurídica).

Presencialmente en el Registro General del Ayuntamiento, opcional para las personas físicas.

En las demás formas legalmente previstas conforme al artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2024-06539

Oro har, eta beste epe batzuk ezarrita dituzten laguntza-programen kasuan izan ezik, eskabideak hogei egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi bakoitza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ordizia, 2024ko irailaren 9a.— Adur Ezenarro Agirre, alkatea.
(6539)

Con carácter general, y con la excepción de aquellos programas de ayuda que tengan establecidos otros plazos, las solicitudes deberán presentarse en el plazo de veinte días hábiles, a partir del día siguiente al de la publicación de cada una de las convocatorias en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ordizia, a 9 de septiembre de 2024.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre.
(6539)

EK\CV GAO-I-2024-06539